

DENBORAK EZIN DU OHITUREKIN

Irati Arostegi
Segura, 17 urte

Atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut guztia; nahiz eta ordudanik dexente denbora igaro, ezinezkoa gertatzen zait garai haiek ahaztea. Nire bihotza irrika biziz egoten da berriro egun ahaztezin haietara itzultzeko. Nola ahaztu bada, bizia alaitzen zizuten egun eguzkitsu haiek, moeta eta kolore ezberdinetako lorez jantzita ageri ziren belardi berde-berde haiek, inguruneari bizitasuna ematen zioten gauza liluragarri haiek guztiak, nire esistentzia balioztatzen zuten pertsona haiek? Haiek ziren nire familia, nire lagunak, guztia. Nire bizitzaren parte ziren, nire bizitzako oinarria eta orain, aldiz, neguko hotz hauek eraginiko bakar-dadea besterik ez dut sentitzen. Guztia ziren niretzat, haiek ematen zidaten berotasuna, eta ez uda zelako, nire alboan egoteagatik bakarrik, maitatua, baliagarria nintzela sentiarazten zidatelako baizik, eta era berean, ni haien bizietan funtsezko osagai bat nintzela aditzera eman ohi zidatelako. Haien eguneko momenturik garrantzitsuenak eta seguraski bizitzakoak ere bai, nire magalean eserita igarotzen baitzituzten, elkarrekin solasean jarduten zutelarik.

Gogoratzen ditut, goizero-goizero erosketak egitera irteten ziren bi emakume haiek. Eguneroko ohitura bilakatu zen haien jardunean parada bat

egin eta epe laburrekoa bazen ere, nire magalean eseririk beren txutxumutxuan aritzea. Normalean beren seme-alabak izan ohi zituzten beren hizketa gai, baina gainontzekoak ere ez ziren libratzen.

– Bai, neska! Lehengoan ere goizeko ordu txikietan etorri hunan etxera, seiak inguruan edo. Gau guztian ezin izan ninan begirik batu haien erruz. Goiz etorriko zela esan zinan baina... aste-bukaeraro bezala, berandu! Aldameneko zokormazoari berriz bost axola zaion bere semeak egiten duena, horrek bai egiten din lo, ondo egin ere lo, aurretik semea ageri ez delako kezka dela eta ezin lo eginik banabil, aldamenetik zurrunda hots nazkagarri hori besterik ez dinat entzuten! Zer egiten ote dinате ordu horiek arte!?

– Ideia izpirik ere ez zeukanat, baina nire alaba ere berdin ibiltzen dun. Beti taxiaren aitzakia jartzen din, bakarra dabilela eta sekulako kolak izaten direla taxi madarikatu hori hartzeko eta... Gu bitartean begirik batu ezinik. Gero esaien, hik ere ia gaupasa egin dunala, haien erruz! Gozoak jartzen ditun bada! Ez direla galduko eta zerbait gertatzen zaien egunean enteratuko garela! Gaur egun telebistan ematen dituzten albisteekin nola lasaituko gaitun bada? Bortxaketak direla, auto istripuak direla, auto gidaria edana zihoala... Guraso izatean ohartuko ditun, bai, zenbat sufritu dugun haien kontura!

– Bai! Eskerrak, nire Mikelek behintzat ez din edaten! Mutil zintzoa dun, ondo hezia izan dun eta bazekin edatea oso txarra dela. Ez Pilarren semea

bezala, lehengoan sekulako mozkorrarekin ibili omen hunan! Maritxuren bitartez enteratu naun. Lehengo larunbatean bere iloba baten ezteiak izan omen zizkinaten eta gauean juergan zebiltzala, Gorkarekin, Pilarren semearekin, topo egin omen zinaten “kubatak” edaten ari zela! Gero hala bukatu omen zinan, zutik egon ezinik! Mutil horrek nire semearengan eragin oso txarrak izan ditza- ken, neska!

– Izan ere, oraingo gazte batzuk...! Eskerrak nire Jone ere ondo hezia dagoen, bestela zer esango ote liken jendeak guri buruz lurrean bueltaka ikusiko bagintu! Agian guraso txarrak izan genituela! Eskerrak, gure Jone ere neska zintzoa den!”

Nola ahaztuko ditut bada, beti beren seme-ala- bengatik kezkaturik bizi ziren bi emakume maita- garri hauek, beren seme-alabak aingerutzat jotzen zituzten bi emakume inozente hauek. Beren seme- alaben berri jakingo balute... Izan ere, haien seme- alabak ere ezagutzen ditut. Haien bizitzan ere osa- garri garrantzitsu bat nintzela sentiarazten zidaten. Arratsaldero biltzen zen Mikel eta Joneren talde guztia nire inguruan, astebukaerako abenturak kontatzeko eta zetorren astebukaerarako plan berriak egiteko.

– Hi, kasu berezi bat haiz, Gorka! Lehengoan ere, sekulako mozkorra harrapatu huen, eta gero, gainera, etxera heltzean amak harrapatu egin hin- duen!

– Hi behintzat ez haiz kabala! Ez al huen Maritxu “pub”-etan zebilela ikusi, ala? Hurrengo egunean

ez zian denbora gehiegirik galdu nire ama jakinaren gainean jartzen! Eskerrak nire amak aingeru bat naizela pentsatzen duen, bestela, akabo!

– Hi santua? Noiztik? Aste honetan diruz urri hembilelako zuritoak edaten aritu hintzela eta horregatik behingoagatik mozkorrik harrapatu ez huelako, ez duk ba esango aingeru bat haizenik ezta?

– Zer esan zian amak?

– Ezer ez. Oso haserre zegok, baina pasako zaiok! Betiko txapada bota zidan; gazteegia naizela edaten hasteko eta ez duela berriro gertatzerik nahi. Oraingoz behintzat ez omen zioz zaharrari esango eta alde horretatik behintzat lasai nagok!

– Hik daukak suertea, hik! Nire amak segituan esango liokek nire aitari!

– Bueno gaiez aldatuz, zer, lehengoan egin ahal huen neskatan?

– Betikoa erantzungo diat nik behintzat: ez! Hala ere, ikusi al huen zelako atsoa sartu zen tabernan, dantzan monoarena egiten ari ginela?!

Ai! Ama-seeek elkarren berri jakingo balute. Azken finean familia guztia elkartzen zen nire inguruan. Gogoratzen dut, hauen alaba eta arreba ere nire egurren gainean jezartzen zirela beren mutil lagunekin. “- Gaur eguraldi ona egiten du, e?”

Mutila zen hizketan hasi zena; geroago jakin nuenez, Xabi deitzen zen.

“– Bai, egia esan, zortea izan dugu.”

Garrantzirik gabeko gauzetan mintzatzen hasten ziren beti, zer esan ez zekitela. Hala ere, biak elkar

asko maite zutela suma nezakeen beren begi dirdiratsuetan elkarri begiratzen ziotenean. Azkenean, neska, pixkanaka-pixkanaka mutilaren ezpainera bereak gerturaten hasten zen, bien ezpainedik elkar ikutzen zuten arte. Elkar muxukatuz eta laztanduz jarraitzen zuten elkar gozatuaz. Egun batean ordea, mutila harengandik apur bat banandu eta belarrira hitz politak xuxurlatuz hasi zitzaion, ondoren neska urduri jarriko zuen zerbait esan ziolarik.

– Jadanik urtebete inguru daramagu elkarrekin, eta oso ondo doakigu...

– Zer esan nahi didazu horrekin?

– Bada, iruditzen zait, dagoeneko harreman sexualak izaten has gintezkeela, elkar ondo ezagutzen dugu eta...”

Neskaren urduritasuna senti nezakeen nire azalean. Neska, bapatean aldendu zen mutilarengandik, eta zer esan ez zekiela geratu zen segundu batzuetan. Azkenik, lotsaren lotsaz aurpegia gorri-gorri jarri eta begiak malkoz betetzen zitzaizkion bitartean, oraindik ez zela momentu egokiena esanez, korrika alde egin zuen, mutilak atzetik jarraitu ziolarik. Egia esan, ordudanik ez ditut berriro ikusi eta pena izugarria dut horregatik, ederra baitzen horrelako bikote polita zoriontsu zela ikustea.

Eguerdi aldera beren paseoetako geldialditxoak eginez, nire inguruan elkartzen zen agure talde bat ere bazen. Beren garaietatik gaur arte gizarteak jasandako aldaketek mintzatzen ziren beti, beren desadostasuna agertuz. Egungo gaztediaren jarrera

zela, zientzian eta teknologian emandako aurrera-kuntza xebreak zirela, etab. beti ziren kexu, baina era berean, beren garaiak gogoratzen zituzten sarri.

“– Ai! Gaurko gazteak guk jasan genuen gerra hartan parte hartu behar izan balute, ez ziren beren buruak txoriz beterik egongo. Benetan jakingo lukete bizitza honetan balio duena eta ez duena bereizten, eta ez lituzkete oraingo droga nazkagarri horiek hartuko. Izan ere, gaurko gaztedia, axolagabe hutsa da, sudur puntan jartzen zaiena egiten dute eta ez dute besteenganako errespetu izpirik. Nora ote doa gaurko mundua!”

Ikusten duzuen bezala, parkeko banku sinple hau, ez zen bakarrik egon udaberri eta uda sasoi haietan. Beti edukitzen nuen norbait nire magalean jezarrita, beren bizitzako momentuetan parte hartzeko baimena ematen zidatelarik. Ni nagoen leku honetatik, inguratzen nauen gizarteaz asko ikasi dut, inguratu nauen pertsona mota guztiei esker. Orain, ordea, bakardadearen hotza arnasten dut, eta ez da udan bezala, erabat ezberdina da, orain baliogabe sentitzen naiz, eta udaberriaren zain nago berriro, biziak jarraitzen duela frogatu nahi dut. Ez dut bakarrik egon nahi denbora gehiago, ez! Udaberriari berriro itzul dadin eskatu nahi diot, eta azkar!